

PRENTSA-OHARRA

Udalak doako lantegiak antolatu ditu energiaren arrazoizko erabilera bultzatzeko, kontsumoak hobetzeko, fakturak ulertzen ikasteko eta gastuan aurrezteko

Energia-gaien inguruko ezagutzak edukitzea garrantzitsua izan daiteke energia-pobreziari aurre egiteko

Iruñeko Udalak doako 12 lantegi antolatu ditu energia-hezkuntzari buruz, non halako gaiei helduko baitzaie: energiaren arrazoizko erabilera, kontsumoen hobekuntza, fakturretan agertzen diren kontzeptuak eta gastua aurrezteak. Iaz ere 6 saioko lehenengo ziklo bat egin zuen Udalak, energiaren arrazoizko erabileraren gainean sentsibilizatu eta prestakuntza emateko, eta, baita ere, herritarrak ahalduzko kontsumoen inguruko erabakiak hartzerako orduan. Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Armando Cuencak eta Energia Berdeko Zerbitzuko zuzendari Joël Dozzik gaur goizean azaldu dutenaren arabera, saio berri hauekin auzo gehiagotara eta pertsona gehiagorengana iritsi nahi da, eta 2017an saioetan parte hartu zutenei ere arreta eman, jarraipena egite aldera.

Lantegiak gazte zein helduei zuzenduta daude, eta astearte arratsaldeetan izango dira, 18:30etik 20:30era, Civivoxetan, ikastetxeetan eta hiriko beste zenbait espazio publikotan. Interaktiboak izango dira, eta terminologia entzule orok ulertzeko modukoa izango da. Hizpide hartuko dira energiari buruzko oinarriko kontzeptuak, kontsumoak, gastuak, fakturak eta etxean aurrezteko aukerak. Sarrera librea da, eta ez da izena aurretik eman behar. Lehenengo lantegia Iturramako Civivoxean izango da, apirilaren 17an, eta hurrengo astekoa, apirilaren 24an, Mendilloriko Civivoxean.

Kontsumoa eta gastua murrizteko neurri zehatzak eta errazak hartzea

Iruñeko biztanleek gauza gehiago jakitea energia-kontuen gainean. Hori da energia-aurrezki eta -eraginkortasuneko lantegi hauen xede nagusia, baita energia berriktagarriak zein energia-autonomia sustatzea ere. Izan ere, ezagutza eta sentsibilizazioa ezinbesteko oinarri dira energia-kontsumo eta aurrezkien gaineko kudeaketa-neurri berriak sartzeko esparru pribatuan, eta bereziki etxebizitzetan. Neurri zehatz horiek gainera, oso erraz aplikatzekoak dira askotan.

Iazko martxoan ezagutzera eman zen Iruñeko energia-pobreziari buruzko azterlanak adierazten zuenez, energia-gaiei buruzko ezagutza falta da energia-prekarietateari lotzen zaion





faktoreetako bat. Txostenean azaltzen ziren zortzi gomendioetatik bik nabarmendu egiten zuten herritarrei informazioa eta aholkularitza emateko gune eta sistema bat antolatzeke beharra – kontsumo eta aurrezki, fakturen analisi, eta balizko jarduketa eta laguntzei buruz–, eta, batez ere, energia-hezkuntzaren beharra. Bestalde, herritarrak sentsibilizatzea bermetzat jotzen da pertsonen konpromiso irmoagoa izan dezaten energia zentzuz erabiltzeko.

Hizkuntza errazeko lantegi praktikoak, zalantza guztiak galdetzeko

Iruñeko Udalaren asmoa da lantegiak saio oso praktikoak izatea, elkar hartuta gogoeta egin eta eztabaidatzeko gune bihurtzea. Helburua da etxebizitzetan egiten den energia-kontsumoaz jabetzea, kontsumitzen dugun energiaren jatorria zein den jakitea eta horrek guztiak ingurumenean, herritarrengan eta ekonomian duen eragina azaltzea. Kontsumoak eta gastuak aztertzeke ere balioko dute, energia-fakturak azaltzeko eta bakoitzean zer eta zenbatean ordaintzen dugun ulertzeko. Elektrizitate-kontsumoen faktura jakin batzuk aztertuko dira.

Halaber, energia aurrezteke moduei buruz hitz egingo da, eta ingurumenean duen eragina murrizteke aholkuak emango dira, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna handitzekei begira, *in situ* eginez kontsumo-simulazioak eta kontsumoak kontrolatzeko proposamen teknologikoak azalduz. Energia ekoizteke aukerak eta autokontsumo energetikoarenak ere jorratuko dira. Saio guztietan bertaratuen zalantzak argitu eta jakin-mina asetzeko denbora-tartea aurreikusi da.

Hamabi lantegi urtean zehar

Hamabi lantegiak urteke bi garaitan banatu dira. Zazpi lehenengoak udaberrian izango dira, eta gainerako bostak, udazkenean. Lehenengo sorta horretan, apirilean egitekoak diren bi saioei beste batzuk gehituko zaizkie maiatzetan: 8an, Sanduzelaiko Civivoxean; 15ean, Buztintxuriko ikastetxe publikoan; 22an, Milagrosako Civivoxean; eta 29an, José María Huarte ikastetxe publikoan. Udaberriko azkena ekainaren 5ean izango da, Zabalguneko Civivoxean.

Udazkenean, lantegien bigarren blokea urriaren 2an abituko da, Ermitagañako ikastetxe publikoan. Urriaren 9an prestakuntza-saioak Ingurumen Hezkuntzako Museoan egingo dira, eta 16an, Nicasio Landa ikastetxe publikoan. Amaitzeko, azaroaren 6an, asteartearekin, San Frantziskoko ikastetxe publikoan izango da lantegia, eta 13an, Txantreako udal-liburutegian.

Prestakuntza Urdinnowak emango du, energia berrietan eta energia-eraginkortasunean aditu diren hiru ingeniari osatzen duten elkarteak. Kostua 4.500 euro da (BEZa kanpo).

ENERGIA-HEZKUNTZARI BURUZKO LANTEGIAK. 18:30 – 20:30. EZ DA BEHARREZKOA ALDEZ AURRETIK IZENA EMATEA

- **Apirilak 17, asteartea.**
- Iturramako Civivoxa. Ezkirotz kalea, 24.
- **Apirilak 24, asteartea.**





- Mendillorriko Civivoxa. Sarriguren Kontzejuaren kalea
- **Maiatzak 8, asteartea**
- Sanduzelaiko Civivoxa. Gortari Doktoarearen plaza, zk.g.
- **Maiatzak 15, asteartea**
- Buztintxuri ikastetxe publikoa. Víctor Eusa kalea, 1
- **Maiatzak 22, asteartea**
- Milagrosako Civivoxa. Taxoare kalea, zk.g.
- **Maiatzak 29, asteartea**
- José María Huarte ikastetxe publikoa. Uxueko Andre Maria kalea, 2
- **Ekainak 5, asteartea**
- Zabalgunekoko Civivoxa. Nafarroako Blanca plaza, 9
- **Urriak 2, asteartea**
- Ermitagaña ikastetxe publikoa. Bartolomé de Carranza kalea, 14
- **Urriak 9, asteartea**
- Ingurumen Hezkuntzako Museoa. Errotazarko kalea, zk.g.
- **Urriak 16, asteartea**
- Nicasio Landa ikastetxe publikoa. Urdanoz multzoa, 2
- **Azaroak 6, asteartea**
- San Frantzisko ikastetxe publikoa. Kale Berria, 28
- **Azaroak 13, asteartea**
- Txantreako udal-liburutegia. Arriurdiñeta plaza, 4

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an

